



## 2020KO URRIAREN 28AN UDALBATZA PLENO MISTOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### 19. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeiko urriaren 28an, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura misto honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak parte hartu dutelarik:

Pleno aretora bertaratuak:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).

Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).

Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).

Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).

Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).

Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Telematikoki konektatuak:

Javier Zubizarreta Zubizarreta J. (EAJ-PNV).

Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).

Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).

Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).

Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).

Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).

Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).

Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).

Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Iburguren J. (EH BILDU).

Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).

Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

2020ko irailaren 30eko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bozketa nominala honakoa izan da:

IZEN ABIZENAK	BOTOA
Marijose Arregi Etxeberria	BAI
Imanol Arrizabalaga Larrañaga	BAI
Ana Azkoitia Urteaga	BAI
Laida Beristain Zubizarreta	BAI
Jose Joakin Etxaniz Peña	BAI
Angel M <sup>a</sup> Etxeberria Iburguren	BAI
Ainara Goenaga Andueza	BAI
Janire Igoa Merino	BAI
Itziar Joaristi Olariaga	BAI
Angel Luis Martin Rodriguez	BAI
Juan Bautista Mendizaal Juaristi	BAI
Iraitz Otaño Mujika	BAI
Ane Miren Peña Larrañaga	BAI
Sonia Vazquez Tejerina	BAI
Mikel Zengotita Alberdi	BAI
Mertxe Zubillaga Albizu	BAI
Javier Zubizarreta Zubizarreta	BAI

Beraz, Udalbatza Osoak 2020ko irailaren 30ean egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

**2.- GAIAREN PREMIATASUNA BERRETSIZ GERO, UDALBATZAR TELEMATIKO ETA MISTOEN FUNTZIONAMENDU ARAUEN ONESPENA**

Lehendabizi, gaiaren premiatasunaren bozketa egin dute batzarkideek.

Bozketa nominala honakoa izan da:

IZEN ABIZENAK	BOTOA
Marijose Arregi Etxeberria	BAI



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Imanol Arrizabalaga Larrañaga	BAI
Ana Azkoitia Urteaga	BAI
Laida Beristain Zubizarreta	BAI
Jose Joakin Etxaniz Peña	BAI
Angel M <sup>a</sup> Etxeberria Iburguren	BAI
Ainara Goenaga Andueza	BAI
Janire Igoa Merino	BAI
Itziar Joaristi Olariaga	BAI
Angel Luis Martin Rodriguez	BAI
Juan Bautista Mendizaal Juaristi	BAI
Iraitz Otaño Mujika	BAI
Ane Miren Peña Larrañaga	BAI
Sonia Vazquez Tejerina	BAI
Mikel Zengotita Alberdi	BAI
Mertxe Zubillaga Albizu	BAI
Javier Zubizarreta Zubizarreta	BAI

Beraz, Udalbatza Osoak Udalbatzar gaiaren premiatasuna onartzea aho batez erabaki du.

Ondoren, honako araudia aurkeztu da:

“GAIA: UDALBATZAR TELEMATIKO ETA MIXTOEN FUNTZIONAMENDU ARAUAK

COVID19ak sortutako pandemia egoera dela eta 2020ko martxoaren 14tik gaurdaino hainbat neurri hartu ditu bai Estatu Espainoleko Gobernuak (kongresuaren onespenerekin), bai eta Eusko Jaurlaritzak, pandemiaren hedapena gelditzeko asmoz.

-Estatua alarma egoeran egon zen 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 21era arte, (euskal autonomi erkidegoan ekainaren 19an indargabetu zirelarik alarma egoerari lotutako neurriak eta normaltasun berria sartu zen). Dena den, data horretatik ere EUSKO JAURLARITZAK neurri berriak hartu eta hartutakoak aldatu ditu, hainbat aldiz, pandemiaren hedapen datuen arabera. Pertsonak elkartzeko egon diren debekuak direla medio, nahiz eta debeku horiek ez dituzten zuzenean erakundeetako organo erabakitzailerak elkatzea galarazi, Lege aldaketak onartu dira erabakiak modu



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

telematikoa hartzea ahalbideratzeko. Horrela 11/2020 Errege Dekretu Legeak aldatu zuen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikulua 3, puntu bat gehituz, honakoa dioena:

*3. En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.*

*A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.*

Azkoitiko Udalak prest ditu osoko bilkura telematikoak egiteko tresnak. Tresna horien bidez bilkura guztiz telematikoak edo mistoak (batzarkide batzuek pleno aretoan presentzialki egonda eta beste batzuek telematikoki bertaratuta) egiteko modua du, bi kasuetan publikotasuna bermatuz. Dena den, modu berri hauetan egin beharreko bilkurak arautu behar dira, Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudiak ez baititu jasotzen osoko bilkuraren modu hauek ez eta horietan sor daitezkeen inzidentziak.

Beraz, Udal honetako Alkateak, egoera kontuan hartuta, osoko bilkura telematikoa edota mistoa deitzea erabakitzen duenean, honako arauak jarraituko direla onartzen du Osoko Bilkurak:

#### OSOKO BILKURA TELEMATIKOAK EDOTA MISTOAK EGITEKO ARAUTEGIA

Lehenengoa: Deialdia

Alkateak osoko bilkurarako deialdia egiten duen momentuan zehaztuko du osoko bilkura presentziala, telematikoa edo mistoa izango den. Ez badu ezer esaten presentziala dela ulertuko da. Deialdian bertan zehaztuko da bilkura telematikoa edota mistoa egiteko arrazoiak, zeina apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.3 artikuluko kausaren batean oinarritua izan beharko den. Deialdia egin ondoren ezingo da osoko bilkura egiteko modua aldatu.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**Bigarrena: Bozketa izenduna egitea**

Pertsona batzuek etxetik konektatuta egoteak ekar ditzakeen konexio arazoei lotuta, gerta daiteke botoa ematerako momentuan horiek konektatuta ez egotea. Horregatik, eta bai batzarkideek bai idazkariak egoera hori argi ikuste aldera, osoko bilkura telematikoa edo mistoa egiten denean, bilkuraren hasieran erabakiko da puntu guztietako bozketa nominala izatea (hori bilkura guztietan onartuko da).

AJAren 101. artikulua eta Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudiaren 12. artikulua araberan, bozketa izendunak honela egiten dira: abizenen hurrenkera alfabetikoz dei egiten zaie zinegotziei, eta zinegotziek beren izena entzutean ozenki esaten dute "bai" ,"ez" edo "abstenitzen naiz". Udalburua da botoa ematen azkena.

Osoko Bilkura mistoa denean ere, batzarkide guztiek beren botoa modu izendunean emango dute (pleno aretoan bertaratutakoek barne).

**Hirugarrena: Espainiar Lurraldean egoteko betebeharra**

TAOLen 46.3 artikulua berriarekin bat, parte hartzaile guztiak Espainiar lurraldean egon behar dira.

Horri dagokionez, eta hori egiaztatzeko tresnarik ezean, Alkateak bilkuraren hasieran adierazpen bat egingo du: esango du kide guztiak espainiar lurraldeko muga barnean daudela jotzen dela, eta eskatuko die, hala ez bada, esan dezatela.

**Laugarrena: Osaketa**

Hasteko ordua iristean, eta idazkariak quoruma egiaztatu ondoren, alkateak hasiera emango dio bilkurari. Beharrezko quoruma da Udalbatzako kideen legezko kopuruaren herena. Quorum hori behar da bilkura osoan. Kontuan hartu behar da, indarrean den legeriaren arabera, zenbait akordio hartzeko kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua behar dela; beraz, quorum hori behar duen punturen bat sartzen bada gai-zerrendan, gutxieneko parte-hartzaile kopurua izango da kideen gehiengo absolutua, gutxienez.

Nolanahi ere, beti egon behar dute bilkuran udalburuak eta idazkariak, edo haien legezko ordezkariak, AJAren 90.1. artikulua eta Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudiaren 8. artikuluaekin bat.

Pleno mistoa deitzen denean, ahal dela, Alkatea, Alkateordea, Idazkaria eta bozeramaileak (edo hauen ordezkariak hitza hartuko duten batzarkideak) pleno aretora bertaratuko dira, audio akta hartzea bermatuz.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**Bosgarrena: Hitza hartzea**

Hitza ematean hartuko da parte, zenbait pertsona aldi berean ez aritzearren, horrek ulermena zailduko bailuke.

Bilera telematikoko parte-hartzaileen mikrofonoak, oro har, itxita egongo dira, inguru-zarataren interferentziak ekiditeko; izan ere, zarata horrek traba egiten du eta hitz egiten ari denari argi ulertzea eragozten du. Hitzartzeetarako bakarrik aktibatuko dute mikrofonoa parte-hartzaileek, hitza ematen zaienean. Akoplamenduak ekiditeko, aurikularrak erabiltzea gomendatzen da.

**Seigarrena: Konexioa**

Udalbatzako kide guzti-guztiek alde aurretik probatu behar dute saio telematikoa egiteko aukeratu den aplikazioa, eta ondo funtzionatzen duela ziurtatu behar dute. Zentzu honetan, zinegotziek proba egingo dute Udalak zehaztutako egun eta orduan.

Zinegotziek telekonexioa egiteko antolaketa fisiko eta tekniko egokia izango dute, eta saioaren hasiera-ordua baino 10 minutu lehenago konektatuko dira, gutxienez.

**Zazpigarrena: Deskonexioa**

Dagokion bozketaren ondorioetarako, gai baten eztabaidari hasiera eman ondoren beren eserlekuetatik alde egin duten eta bozkatzeko unean bertan ez dauden zinegotziak abstenitu egiten direla ulertuko da. Bozketa egin baino lehen batzarretora itzuli badira, bozketan parte hartu ahal izango dute.

Artikulu hori saio telematikoetara egokituz gero, zinegotziren batek konexioa galtzen badu, eta saiotik irteten bada, eta bozketako unean ez baldin badago, zinegotzi hori abstenitu egin dela ulertuko da. Bozketa nominala izanda, bere izena esandakoan konektatuta egon ez arren, batzarkide guztien izenak eta bozkak ematen amaitu aurretik konektatzen bada, amaieran, Udalburuaren ondoren, berriz ere bere izena esango da eta botoa ematen utziko zaio. Udalburuak bozkatu ondoren konexiorik gabe jarraitzen badu, bere bozka abstentziotzat joko da.

**Zortzigarrena: Osoko bilkuraren publikotasuna bermatzea**

Udalbatzarrak irekiak direnez, saio telematikoa egiten denean saioak zuzenean eta irekian emango dira plataforma digitaletan. Saioa mistoa denean, bermatutzat jotzen da publikotasuna plataforma digitalean ez bota arren, publikoak bertaratzeko aukera izango lukeelako eta baita bertaratutako eta telematikoki konektatutako zinegotzien esanak jarraitzeko.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Dena den, gaiaren garrantzia edo oihartzuna tarteko publikora jende asko etortzea espero bada, eta jende pilaketak ekidite aldera, osoko bilkura mistoa plataforma digitalean botatzea erabaki ahal izango du Alkateak.

Bozketa nominala honakoa izan da:

IZEN ABIZENAK	BOTOA
Marijose Arregi Etxeberria	BAI
Imanol Arrizabalaga Larrañaga	BAI
Ana Azkoitia Urteaga	BAI
Laida Beristain Zubizarreta	BAI
Jose Joakin Etxaniz Peña	BAI
Angel M <sup>a</sup> Etxeberria Iburguren	BAI
Ainara Goenaga Andueza	BAI
Janire Igoa Merino	BAI
Itziar Joaristi Olariaga	BAI
Angel Luis Martin Rodriguez	BAI
Juan Bautista Mendizabal Juaristi	BAI
Iraitz Otaño Mujika	BAI
Ane Miren Peña Larrañaga	BAI
Sonia Vazquez Tejerina	BAI
Mikel Zengotita Alberdi	BAI
Mertxe Zubillaga Albizu	BAI
Javier Zubizarreta Zubizarreta	BAI

Beraz, Udalbatza Osoak Udalbatzar telematiko eta mistoen funtzionamendu araua onartzea aho batez erabaki du.

**3.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO AZKOITIKO UDALEKO 6 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## “ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA

### 1.- AURREKARIAK

2020urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Hirigintza batzordeko Arduradun politikoak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

### TXOSTENA

#### AZKOITIKO UDALA

#### KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA

#### KREDITU GEHIGARRIA 6/2020

#### AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

#### ARAUDI APLIKAGARRIA:

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa

2020rako aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibidea (2019ko azaroaren 14an argitaratuak GAO)

#### AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

#### 1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

##### 1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA  
SAN JOSE EGOITZA  
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

##### 1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aurrekontu aldaketaren espedienteak **-2.439.920,79** euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2019ko Udaleko eta bere erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretiazko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Doiketa honen zioa Diputatuen Kontseiluaren Akordioak, 2019ko azaroaren 14koa, Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2020rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko 1 erregelako azken atalean zehazturikoa dago. Bertan dio egonkortasun helburuaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkaria Komunikazioa egin behar zaio Udalbatzari.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziakzioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2019ko aurrikusiriko gerakina
Kreditu txertaketa 1/2020	503.514,95
Kreditu txertaketa 2/2020	1.420.933,68
Kreditu gehigarria 1/2020 udala	10.000,00
Kreditu txertaketa Elkargune 1/2020	208.613,26
Kreditu gehigarria 2/2020 udala	20.000,00
Kreditu gehigarria 3/2020 udala	230.000,00
Kreditu gehigarria 4/2020 Udala	319.050,00
Kreditu gehigarria 5/2020 Udala	232.000,00
Kreditu gehigarria 1/2020 Elkargune	181.763,17
Kreditu gehigarria 6/2020 Udala	25.900,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.151.775,06</b>

. Honegatik doiketa 3.151.775,06 €koa da eta ondorioz **espedienteak 711.854,27ko superabita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

### Finantzen iraunkortasuna

2020ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 3.309.844,37€, 2019an likidatutako sarrera arrunten (15.802.667,16€) % 20,94 izango da. Kalkulua egiteko, 2019ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2020rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2020rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

2020rako ezarritako helburua magnitude hori %70 baino txikiagoa izatea da.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hori dela eta, 2020ko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2020rako helburua.

### Gastuaren araua

Une honetan ez da gastu arauaren azterketa egingo. Hau, 2020ko jarraibideen arabera, 2020ko aurrekontuaren likidazioa egitean egiaztatuko da.

### 1.3.- ONDORIOAK

2020ko Udaleko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarriak 6/2020 bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren (gerakinaren doiketaren ondorioz), finantza iraunkortasunaren arloetan 2020rako ezarritako helburuak .

Ondorioz 2020ko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarria 6/2020 espedienteak, 2019ko azaroaren 14koa, Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2020rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko 1 erregelako azken atalean zehazturikoa betez, hau da, egonkortasun helburuaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkari 1/2013 Foru Arauaren 5. Artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako Komunikazioa egin beharko zaiola Udalbatzari dio.

1 Erregelaren azken paragrafoak dio plan ekonomiko finantzario bat egiteko betebeharra zehazteko, apartatu honetan jarritako helburua bete izana 2020ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Hau horrela izanik kontu hartzaile honek ez du une honetan entitatearen finantza iraunkortasunaren azterketa eta ebaluaketa egingo. Azterketa hau 2020ko aurrekontuaren likidazioa egitean egingo da, beti ere erregela honetan ezarritako helburua beteko ez balitz.

Azkoitian, 2020ko urriak 19an  
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

### IRIZPENA

**LEHENENGO:** Proposamenean zerrendatzen diren Azkoitiko Udalaren gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espediente onestea, 60.049,00 € zenbatekoa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

SARREREN KONTZEPTUA EDOTA GASTUEN PARTIDA	BALIABIDEEN KONTZEPTUA	EGUNKO KREDITUAK	SARRERA HALUNDIAGO GASTU BAJAK	BEHINEKOTIKO KREDITUAK
CONCEPTO DE INGRESOS O PARTIDA DE GASTOS	CONCEPTO DEL RECURSO	CREDITOS ACTUALES	MAYORES INGRESOS Y O BAJAS EN GASTOS	CREDITO DEFINITIVO
2 1000.420.11	Foru A/d: merkataritza eta ostalaritza indarberitu Covid 19aren eraginagatik	0,00	34.149,00	34.149,00
<b>4 KAP</b>		<b>0,00</b>	<b>34.149,00</b>	<b>34.149,00</b>
2 1000.870,000,00,01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretako/Remanente de Tesorería para gastos generales	2611.539,14	25.900,00	2.637.439,14
<b>8 KAP</b>		<b>2611.539,14</b>	<b>25.900,00</b>	<b>2.637.439,14</b>
	<b>SARRERA HALUNDIAGOAK GUZTIRA/TOTAL MAYORES INGRESOS</b>	<b>2611.539,14</b>	<b>60.049,00</b>	<b>2.671.588,14</b>
	<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>2611.539,14</b>	<b>60.049,00</b>	<b>2.671.588,14</b>

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

PROPUESTA DE REALIZACIÓN DE GASTOS Y LA CORRESPONDIENTE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS

ALURBEN KONTUKO PARTIDA	IZENA	EGUNKO KREDITUAK	GEHIGUNTZAK	GUZTIRA
PARTIDA PRESUPUESTARIA	DENOMINACIÓN	CREDITOS ACTUALES	ALIMENTOS	TOTAL
3000,211,342,20,00	Frontoiaren mantenua	4.000,00	5.000,00	9.000,00
3000,211,342,30,01	Tixerloia futbol zelaiaren mantenua	12.500,00	3.500,00	16.000,00
8000,211,431,20,00	Azokako eraikina zaindu	2.000,00	3.500,00	5.500,00
	<b>GUZTIRA KAP 2</b>	<b>18.500,00</b>	<b>12.000,00</b>	<b>30.500,00</b>
4000,481,230,00,16	Banco de alimentos/ elikagaien bankua	0,00	1.900,00	1.900,00
8000,471,431,50,02	Merkataritza eta ostalaritza indarberitzeko dirulag Covid 19aren ondorioei aurre egiteko	0,00	34.149,00	34.149,00
	<b>GUZTIRA KAP 4</b>	<b>0,00</b>	<b>36.049,00</b>	<b>36.049,00</b>
3300,623,323,40,02	EPA, aire egokituaren instalakuntza	0,00	12.000,00	12.000,00
	<b>GUZTIRA KAP 6</b>	<b>0,00</b>	<b>12.000,00</b>	<b>12.000,00</b>
	<b>GUZTIRA/TOTAL</b>	<b>0,00</b>	<b>60.049,00</b>	<b>78.549,00</b>

**BIGARRENA:** Espediente onartzeko eskumena bilkura osoari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

Hala ere Kreditu aldaketa espediente honetan azaltzen den "Merkataritza eta ostalaritza indarberitzeko dirulag Covid 19aren ondorioei aurre egiteko" deritzon partidaren, 34.149,00 € kopurua duenaren zioa da Covid 19aren ondorioz Azkoitiko merkataritzaren gainbeherari aurre egitea da, dirulaguntza lerro bat onartuz galerei aurre egiteko.

3/2020 Foru Dekretu Arauak, maiatzaren 12koak, bigarren artikuluan dio Toki Erakundeetan, Covid 19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien ez zaizkiela aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren



34.artikuluari aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

Ondorioz, 8000.471.431.50.02 “Merkataritza eta ostalaritza indarberritzeko dirulag Covid 19aren ondorioei aurre egiteko” partidaren onarpenak ez du jendeaurreko epea edukiko eta behin bilkura osoak onartuz gero behin betikoz onartua geldituko da.

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko urriaren 22an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Ainara Goenaga, Iraitz Otaño

**ABSTENTZIOA:** Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia.

Guztira 60.049 €ko sarrerak direla esan du, hortik 25.900€ kreditu gehigarritik eta 34.149€ Gipuzkoako Foru Aldunditik datozela.

Ondoren, banaketa modu honetan egitea proposatzen dela dio: frontoiaren mantenuan 5.000€, Txerloia Futbol Zelaiaren mantenuan 3.500€, Azokako eraikinaren zainketan 3.500€, Elikagaien bankuari 1.900€ ematea aportazio berezi gisa.

Azkenik, EPAko eraikinean aireztapen sistema jartzeko 12.000€ erabiliko direla adierazi du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, 2019ko urrirako agindu zela legealdi plana esan du, urtebete atzeratuta doazela. Udal Gobernuak erabakitzen duela zertan gastatu dirua eta ez alderdi denen artean eztabaidatuta. Parte-hartze minimoa eskatzen dute. Ez dute uste ohiko kreditu aldaketatzat jo daitekeenik, hiru partidek Covidarekin zerikusia dutelako, hortaz, abstenitu egingo direla dio.

Ana Azkoitia andreak, batzordeetan irekita daudela ekarpenak jasotzera erantzun dio Jose Joakin Etxaniz jaunari. Covid-a tarteko erdi bukatuta zegoen legealdi plana, aldatu beharrean aurkitzen direla. Uste du, dena den, kreditu aldaketa batzuk ezingo direla legealdi planean sartu ere egin, askotan beharrak sortzen diren heinean egiten direla, hau da, kreditu aldaketak ezin direla aurreikusi.

Jose Joakin Etxaniz jaunak aurreko kreditu aldaketa izan zela Ibaiondo kaleko asfaltatua, eta abar esan du; ez dela eztabaidatzen zertan gastatu, non dagoen behar gehiago.

Ana Azkoitia andreak parte hartze hori batzordean egin behar dela berretsi du, bi batzorde egiten direla hilean, egiteko planteamendua batzordean esaten dio Jose Joakin Etxaniz jaunari.

Bozketa nominala honakoa izan da:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>BOTOA</b>
Marijose Arregi Etxeberria	BAI
Imanol Arrizabalaga Larrañaga	BAI
Ana Azkoitia Urteaga	BAI
Laida Beristain Zubizarreta	BAI
Jose Joakin Etxaniz Peña	ABSTENTZIOA
Angel M <sup>a</sup> Etxeberria Iburguren	BAI
Ainara Goenaga Andueza	BAI
Janire Igoa Merino	BAI
Itziar Joaristi Olariaga	BAI
Angel Luis Martin Rodriguez	BAI
Juan Bautista Mendizabal Juaristi	BAI
Iraitz Otaño Mujika	BAI
Ane Miren Peña Larrañaga	BAI
Sonia Vazquez Tejerina	BAI
Mikel Zengotita Alberdi	BAI
Mertxe Zubillaga Albizu	BAI
Javier Zubizarreta Zubizarreta	BAI

Beraz, Udalbatza Osoak kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko 6 zenbakidun espedientea hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.

**4.- 2020-2022 AZKOITIKO UDALEKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETAREN ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA**

**AZKOITIKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2022REN II. ALDAKETA**

**LEHENA.- AURREKARIAK**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2019ko abenduaren 27an Udal bilkura osoak, Azkoitiko Udalaren Diru-laguntzen plan estrategikoa 2020-2022onartu zuen.

2020-2022 aldian egongo da indarrean, eta izaera programatikoa duen kudeaketa tresna bat da. Ez du indar arautzailerik.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua agindua ematen du, diru laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoak behartuta daudela alde aurretik diru laguntzen plan estrategiko bat egitera.

Agindu hau betez 2020-2022 urtetarako plan hau proposatzen da, legealdiarekin bat datorrena.

Bertan, Azkoitiko Udaleko departamentuetatik kudeatzen diren diru laguntzen lerroak zehazten dira.

Departamentuak honako hauek dira:

- Euskara
- Hezkuntza
- Antolakuntza
- Gizarte Ongizatea
- Gazteria
- Alokairu sozialak
- Ingurumena
- Iraurgi Lantzen
- Merkataritza
- Kirola
- festak
- Kultura

Lerro bakoitzean informazio hau zehazten da:

- Dirulaguntza lerroa
- Helburuak
- Lortu nahi diren ondorioak
- Urteko kostua
- Finantziazioa
- Esleipen prozedura

Garrantzitsua da zehaztea dirulaguntzen plan estrategikoa onartzeak ez dakarrela berekin onuradun izan daitezkeen erakunde eta/edo pertsonen aldeko eskubiderik batere sortzea.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa gida bat da zeinak, aurretik ezarrita dagoen arau-esparruaren barruan, interes orokorreko jarduerak sustatzeko jarraibidea ematen duen.

Planaren helburuak 5. Artikuluan aipatzen dira eta besteak beste hauek dira:

1. Betetzea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako legezko agindua, zeinak diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoak behartzen dituen aldez aurretik Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat egitera.
2. Udalari tresna bat ematea beraren eskumenekoak diren gaietan interes publiko eta sozialeko jarduerak babestu eta sustatu ahal izan ditzan.
3. Udaleko laguntza-lerro guztiei printzipio komun eta oinarri arautzaile batzuk ematea.
4. Ekonomiaren ikuspegitik, laguntzen jasagarritasun eta eraginkortasuna hobetzeko aukera emango duten tresnak definitzea.
5. Gardentasuna, informaziorako sarbidea eta gobernantza on bat, udal guztiei eskatzeko modukoa den zerbait.

## BIGARRENA.- ALDAKETAK

**2.1.-** Alkateak dekretu bitartez 2020ko uztailaren 28an kreditu aldaketa kreditu gehigarria 4/2020 onartu zuen.

Aldaketa honetan "Pauso Berriak" erakundearekin programa garatzeko, hitzarmena onartu aurretik, partida sortu zen, honako ezaugarriak zituena:

Kodea: 4000.481.230.00.15

Kopurua: 4.050,00€

Dirulaguntza lerro hau plan estrategikoan azaltzen ez zenez, hau txertatu beharra dago bertan, Ongizatek kudeatzen dituen dirulaguntzetan.

ONGIZATE ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA:ONGIZATE SAILA					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZI OA	ESLEIPEN PROZEDUR A



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Pauso berriak elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza	Adimen desgaitasuna duten pertsonak euren garapen pertsonala eta soziala ahalbidetuko duten lanpostuetan txertatzea da.	Lan merkatua arruntean lanbideratze osoa lortzea eta eredu positibo eta sozialki eraldatzaileak sortzea.	4.050,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
---	---	--	----------	--	----------

**2.2** Alkateak, Irailaren 16ko dekretu bitartez, kreditu globala erabiliz, Marea Urdina erakundearentzat aurreikusirik zegoen partida haunditu egin zuen 1.610,00 €tan; Honen arrazoia „Imanol Aleson“en bidaia izan zen, marea urdinaren alde. Honen arabera hitzarmenean jarduera hau ere islatu zen diruz laguntzeko.

Aldaketa honetan, honako ezaugarriak dituen partida sortu zen:

Kodea: 4000.480.230.00.04

Kopurua: 2.710,00€

<b>ONGIZATE ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA:ONGIZATE SAILA</b>					
<b>DIRU LAGUNTZA LERROA</b>	<b>HELBURUAK</b>	<b>LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK</b>	<b>URTEKO KOSTOA</b>	<b>FINANTZIAZIOA</b>	<b>ESLEIPEN PROZEDURA</b>
Marea Urdina elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza	Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiei laguntza zerbitzua izatea bermatzea.	Azkoitian Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiak elkartearen bitartez laguntzea.	2.710,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

**2.3** Urriko bilkura osoari, Urriak 22an ospaturiko antolakuntza batzordeak, irizpena proposatuko dio, kreditu aldaketa kreditu gehigarria 6/2020 zenbakiduna.

Kreditu aldaketa honetan Elikagaien bankuarekin hitzarmena sinatu aurretik onartu behar den partida islatzen da.

Kopurua zehazterakoan Azkoitiko biztanlegoa kontuan hartu da eta biztanleko 0,16 € aurreikusi dira.

Aldaketa honetan, honako ezaugarriak dituen partida onartuko da:





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kodea: 4000.481.230.00.16

Kopurua: 1.900,00€

ONGIZATE ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA:ONGIZATE SAILA					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Elikagaien bankua elkartearen egitasmoa garatzeko laguntza diru	Covid-19 eragindako premien gorakadak, baita kanpaina berriak ezin egiteak, Azkoitiko herritarrei hornitzen dien Bergarako Elikagai Bankuak biltegia hornitzea eta gastuei aurre egiten laguntzea da.	Marjinazio, langabezia eta pobrezia egoeran dauden pertsonen eligiai soberakinak edo premia larria duten bestelako artikulak eskuratu, biltegiratu eta doan banatu.	1.900,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

**2.4.-2020ko** uztailaren 23an Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko Foru Diputatuak Azkoitiko Udalaren alde 34.149,00 €ko dirulaguntza onartu zuen.

Honen zioa Covid 19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko diru laguntza da.

Irailean Dirusarrera egin du Aldundiak Udalaren diruzaintzaren kontuan.


Behin partida onartua, dirulaguntzen oinarriak onartu eta eskaera epea ireki behar da, ahal den azkarren dirulaguntza hauek bideratzeko


Ondoren atxikitzen da Aldundiak onarturikoa:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1 / 1 100%


 Diputación Foral de Gipuzkoa  
 Diputazio Forala Gipuzkoakoa  
 Foral Administration of Gipuzkoa


 Azkoitia

2020 Y3T: 23  
 Zk. / Pt. 4.052

OF 133 /2020 (ES)

**Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuko Foru Diputatuak, 2020/07/14ko datarekin, ondorengo Foru Agindua eman du:**

**COVID-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko programa-ren, 2020. urteko laguntza delaldiaeren barruan aurkeztutako dirulaguntza eskararak, programaren araudia eta Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak prestatutako bosten teknika ikusita, hauex**

**El Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural con fecha de 14/07/2020 ha dictado la siguiente ORDEN FORAL:**

Vistas las solicitudes de subvención presentadas al amparo de la convocatoria 2020 de ayudas del Programa para la reactivación económica local en los sectores del comercio y hostelería para hacer frente a la COVID-19, la Normativa Reguladora de dicho programa y el Informe técnico elaborado por el Servicio de Promoción Económica,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

**LEHENENGOA:** AZKOITIKO UDALARI (IFZ: P2001800H) 34.149,00.-€ zenbatekoa ematea eta ordaintzea Departamentuko ondoko kontu sailaren kargura, proiektu honengatik:

**PRIMERO:** Conceder y abonar a AZKOITIKO UDALA (NIF: P2001800H) la cantidad de 34.149,00.-€ con cargo a la partida señalada del presupuesto del Departamento por el proyecto:

**Proiektua/Proyecto:** Covid-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko diru-laguntzak  
**Kontu saila/partida:**  
 1.0210.100.761.01.01.2020: 34.149,00.-€

Aldaketa honetan, honako ezaugarriak dituen partida sortu zen:

Kodea: 8000.471.431.50.02

Kopurua: 34.149,00€

Dirulaguntza lerro hau plan estrategikoan azaltzen ez zenez, hau txertatu beharra dago bertan, Merkataritzak kudeatzen dituen dirulaguntzetan.

MERKATARITZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: MERKATARITZA SAIL					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZI AZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Covid 19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko diru laguntza	tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreen kalteak murriztu	tokiko merkataritza eta ostalaritza indartu egoera zail honetan	34.149,00	Finantzake ta funts propioekin egingo da Aurrekontu ako IV kapituluare n kontura	NORGEHIAGOKA

ESKUA3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421

ONARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK



## 1.- AZAROAREN 17KO 38/2003 DIRULAGUNTZEN LEGEA:

Lege honen 8.1 artikulua agindua ematen du diru laguntzak eman nahi dituzten Udal guztiek onartu beharra daukatela beren diru-laguntzen plan estrategikoa, era honetara:

### *Artículo 8 Principios generales*

*Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.*

## 2.- IZAERA JURIDIKOA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa da izaera programatikoa duen kudeaketa-tresna bat, indar arautzailerik ez duena.

## 3.- INDARRALDIA:

Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau 2020-2022 aldian egongo da indarrean.

2020ko ekitaldia bukatutakoan beste Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat onartuta ez badago, ulertuko da plan hau luzatu egiten dela gauzatzen jarraituko duten jarduketarretan, betiere, horretarako aurrekontuko kontsignazio egoki eta nahikoa badago.

## 4.-ESKUMENA:

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da; izan ere, plan hori da diruz laguntzeko edo sustatzeko eta kudeaketa ekonomikoko jardueraren plangintza estrategikoko tresna bat, bat etorrira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikuluko e) letran xedatutakoarekin.

Beraz, Ogasuna, barne antolakuntza, Pertsonala, kontratazioa, sutapen ekonomikoa eta merkataritza batzordeak, 2020ko uztailaren 2an eginiko bileran honako irizpena proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** 2020- 2022 Azkoitiko Udaleko diru-laguntzen plan estrategikoaren aldaketa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

MERKATARITZA sailekoak honela geratuko delarik:

<b>MERKATARITZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: MERKATARITZA SAILA</b>					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZ IAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Covid 19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko diru laguntza	tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreen kalteak murriztu	tokiko merkataritza eta ostalaritza indartu egoera zail honetan	34.149,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
Azkoitian covid-19ak eragindako alarma-egoeraren ondorioz, merkataritza, ostalaritza eta hainbat zerbitzuko jasandako kalteei aurre egiteko eta beren jarduerak berraktibatzeke diru-laguntzak	COVID-19aren kaltetuak izan diren merkataritza, ostalari eta beste zerbitzu batzuen jardueraren ekonomikoa berrabiarazten laguntzea eta behar duten bultzada ematea.	negozio txiki horiek eguneroko martxa hartu eta aurrera egin dezaten hausnarketa eta proiektu bat egitea negozioa berraktibatzeke eta horretan laguntzea	200.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA
Herrixen Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitiko Udalaren eta "Herrixen" Azkoitiko Merkatarien Elkartearen arteko lankidetzarako	Azkoitiko merkataritza gune berriak suspertzea eta sustatzea, eta lehendik daudenak indartzea.	23.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurreko	IZENDUNA

ESKUa3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	baldintzak ezartzea, elkarteari gaitasun tekniko eta materialak eskainiz, merkataritzaren zerbitzura lan egiteko.	Herriko merkataritza errentagarriaren eta kalitatezkoaren lehiakortasuna eta eskaintza areagotuz.		ntuako IV kapituluaren kontura	
Azkoitiko Udalerrian lokalen alokairua sustatzeko laguntzak	Azkoitiko lokal hutsak betetzea edota jardueretan belaunaldiaren aldaketa sustatzea, Ekintzaile berrien bitartez.	Azkoitiko udalerrian, merkataritza dentsitate txikiko eta lehentasunezko eremuetan merkataritza berreskuratzea eta indartzea eta eremu horiei bizia ematea. Era berean, ekintzaileek jarduera berriak martxan jartzeko aukerak izatea.	25.000,00	Finantza keta funts propioekin egingo da Aurreko ntuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGO KA
Azkoitiko Udalerrian merkataritza sustatzeko laguntzak	Azkoitiko Merkatariek (elkartu naiz Elkartu gabeak), herrian Ekintza ezberdinak antolatzeke laguntza ematea.	Azkoitiko merkatariek beraien Negozioetan kalitatezko zerbitzua ematea eta promozio kanpaina bateratuak egitea Herriko eskaintza hobetuz.	7.000,00	Finantza keta funts propioekin egingo da Aurreko ntuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGO KA

ESKUA3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ONGIZATE sailekoak honela geratuko delarik:

**ONGIZATE ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA:ONGIZATE SAILA**

URTEKO KOSTOAFINANTZIAZIOAESLEIPEN PROZEDURADIRU LAGUNTZA LERROA					
Pauso berriak elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntzaHELBU RUA KLORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	Adimen desgaitasuna duten pertsonak euren garapen pertsonal eta soziala ahalbidetuko duten lanpostuetan txertatzea da.	Lan merkatua arruntean lanbideratze osoa lortzea eta eredu positibo eta sozialki eraldatzaileak sortzean.	4.050,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Elikagaien bankua elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza	Covid-19 eragindako premien gorakadak, baita kanpaina berriak ezin egiteak, Azkoitiko herritarrei hornitzen dien Bergarako Elikagai Bankuak biltegia hornitzea eta gastuei aurre egiten laguntzea da.	Marjinazio, langabezia eta pobrezia egoeran dauden pertsonen eligai soberakinak edo premia larria duten bestelako artikulua eskuratu, biltegiratu eta doan banatu.	1.900,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Drogramenpeko asunak tratatzeko diru-laguntzak	Adikzioen tratamenduko zentrorako joaten diren Azkoitiarrei eta beraien senitartekoei erreabilitazioan laguntzea	Tratamendu zentrorako joatearen oztipoa ez izatea garraioaren kostua; beraz, tratamenduaren hasiera eta jarraipena bultzatzea.	1.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKOR DIOA
Preso dauden senideentzako garraiorako diru-laguntzak	Euskal Autonomia Erkideko kanpoko presondegiak egiten dituzten bisitak direla-eta zigorraz preso dauden edo prebentzioz kartzelaturik dauden pertsonen sendiei sortzen zaizkien joan-etorrien gastuak zati batean diruz laguntzea.	Preso dauden edo prebentzioz kartzelaturik dauden senitartekoen presondegiak bisitan joatea oztipo ekonomikoak ekidituta	1.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKOR DIOA
GURUTZE GORRIA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia,	4.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak	IZENDUNA

ESKUA3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

laguntza.	dituzten irabazi asmorik gabeko elkartearen jarduerak diruz laguntzea	boluntarioritza, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.		o IV kapituluaren kontura	
ATZEGI Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkartearen jarduerak diruz laguntzea	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioritza, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	3.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ODOL EMAILEAK elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkartearen jarduerak diruz laguntzea	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioritza, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	3.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
DARAHLI elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkartearen jarduerak diruz laguntzea	Oporrak bakean programaren baitan Azkoitiko familietan artatzen duten bi adingabeen bidaiak ordaintzea.	1.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Marea Urdina elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza	Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiei laguntza zerbitzua izatea bermatzea.	Azkoitian Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiak elkartearen bitartez laguntzea.	2.710,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Elkar Ekin diru laguntza	Emakume atzeritarren heziketa eta enpoderamendua n laguntzea	Azkoitiko emakumeen enpoderamendua eta heziketan ahalbidetzea.	1.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
MALEN etxea diru laguntza	Emakume atzeritarren babes eskaintzen dien elkarteari laguntzea	Azkoitiko emakume atzeritarren babes sistema areagotzea	1.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
KARITAS Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia,	12.425,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak	IZENDUNA

ESKUa3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteen jarduerak diruz laguntzea	boluntarioria, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.		o IV kapituluaren kontura	
IZAN fundazioa elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteen jarduerak diruz laguntzea	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	1.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Gizarte Zerbitzuen Maparen Garapena	Bailaran Gizarte Zerbitzuen mapa garatzea	Mapa honekin lortu nahi dena da erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzea eta gizarte partaidetza sustatzea, Udalen adostasuna lortuz.	37.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzeta garatzeko diru laguntza.	Gobernuz Kanpoko Erakundeei garapen bidean dauden herrialdeetan burutzen dituzten programak aurrera eramateko diruz laguntzea, baita azkoitiarrak sensibilizatzeko antolatzen dituzten ekintzak ere.	Garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzea. Baita ere herrialde horien egoeraren berri azkoitiarrei ematea.	60.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
Jubilatuen etxearen mantenturako diru laguntza	Jubilatuen etxean dauden gastuei aurre egiteko jubilatuen elkarteak diruz laguntzea.	Jubilatuen elkartearen eskaintzen diren jarduerak kalitatezko bermearekin ematea.	16.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Emakumeen berdintasunerako egitasmo estrategikoa ezartzeko diru laguntzak	Emakumeen berdintasunerako egitasmo estrategikoa ezartzea	Emakumeen berdintasunerako egitasmo estrategikoa ezartzeko beharrezko diren pausuak eman ahal izateko diruz laguntzea	5.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

ESKUA3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Zaharren astea burutzeko diru laguntza	Zaharren astea burutzeko suertatzen diren gastuei aurre egiteko jubilatuen elkartearen diruz laguntzea.	Zaharren astea antolatzea eta parte hartzea bermatzea.	8.300,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
San Jose Egoitzarentzat diru laguntza.	San Jose Egoitzan dauden gastuei aurre egiteko Egoitza diruz laguntzea.	San Jose Egoitzaren eskaintzak beharrezko diren kalitatea izatea bermatzea.	60.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Jubilatuaren etxearen baitan antolatzen diren jarduerak bultzatzeko diru-laguntza	Bultzatzea Azkoitiko pertsona nagusien parte hartzea eta gizarteratzea; pertsona nagusiak aktibo mantentzea; eta, indartzea adinekoek beraien artean eta komunitatearekin dituzten harremanak.	Jubilatuaren etxearen baita antolatzen diren ekintzetan parte hartze handia izatea; azkoitiarrak antolatzen diren ekintzekin asebetetuak egotea; ekintzek adinekoen narridura kognitiboa edo/eta fisikoa saihestea.	15.300,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Gizarte larrialdietarako diru-laguntzak	Azkoitiarren gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak –ohikoak zein apartekoak– aurre egitenko behar beste baliabide ez dutenei diruz laguntzea.	Azkoitiarren ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izatea; oinarriko premiei buruzko gastuak bermatuak edukitzea (jantziak, hezkuntza...); eta, zorpetzeko gastuekin laguntzea	104.500,00	Finantzaketa Eusko Jaurlaritzaren funtsen bitartez egingo da	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKOR DIOA
Udal tasak ordaintzeko diru laguntzak	Udal tasak ordaindu ezin dituzten pertsonak diruz laguntzea	Azkoitian Udal tasak ezin ordaindu dituenik ez egotea. Horretarako, ordaindu ezin dutenak diruz lagunduz	16.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKOR DIOA

ESKUA3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Etxeko eremuan tratatu txarrak pairatu dituzten emakumeei laguntzeko diru-laguntzak	EAEko legediak aurreikusten dituen laguntzak osatzea azkoitiar emakumeek eduki ditzaketen oinarrizko beharrak asetzeko.	Emakume azkoitiarrek pairatu duten indarkeria matxistaren ondorioei aurre egiteko laguntza osagarria ematea	4.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA
Gizarte ongizate arloko hainbat diru-laguntza	Azkoitiarren gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoiei –ohikoak zein apartekoak– aurre egitenko behar beste baliabide ez dutenei diruz laguntzea.	Azkoitiarrek ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izatea; oinarrizko premiei buruzko gastuak bermatuak edukitzea (jantziak, hezkuntza...); zorpetzeko gastuekin laguntzea; eta abar	35.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA
Emakumearen sustapena duten elkarteei diru-laguntzak	Azkoitian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko azkoitiarrentzat irabazi asmorik gabeko elkarteek antolatzen dituzten jarduerak diruz laguntzea	Emakume azkoitiarren enpoderamendua bultzatzea; emakumeen arteko elkarguneak indartzea; zailtasunak dituzten emakumeen gizarte harremanak sendotzea	7.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
Azkoitiko eskolek prebentzio kanpainak bultzatzeko diru-laguntzak	Azkoitiko eskolek azkoitiar gazteekin adikzioen prebentzioa sustatzeko jarduerak diruz laguntzea.	Azkoitiar gazteek hainbat adikzioei buruzko informazioa edukitzea; horiei aurre egiteko beharrezkoak diren bitartekoak esagutzea; eta, horien kontsumo arduratsua sustatzea.	4.200,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuak o IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

ESKUA3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**BIGARRENA.-** 7/1985 Legearen 70.2 artikularekin bat, behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Azkoitiko udalaren web orrian eta Gipuzkoako Atarian argitaratuko da

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko urriaren 22an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Ainara Goenaga, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia. Hiru dirulaguntza sartu beharrean aurkitzen direla dio:

- 1) Pauso Berriaki ematen zaiona.
- 2) Marea Urdinaren zenbatekoa aldatzea.
- 3) Covid-19 Tokiko Merkataritza indartzeko dirulaguntza.
- 4) Elikagaien Bankuari dagokiona.

Jose Joakin Etxaniz jaunak alde bozkatuko dutela esan du izapide bat delako.

Bozketa nominala honakoa izan da:

IZEN ABIZENAK	BOTOA
Marijose Arregi Etxeberria	BAI
Imanol Arrizabalaga Larrañaga	BAI
Ana Azkoitia Urteaga	BAI
Laida Beristain Zubizarreta	BAI
Jose Joakin Etxaniz Peña	BAI
Angel M <sup>a</sup> Etxeberria Iburguren	BAI
Ainara Goenaga Andueza	BAI
Janire Igoa Merino	BAI
Itziar Joaristi Olariaga	BAI
Angel Luis Martin Rodriguez	BAI
Juan Bautista Mendizabal Juaristi	BAI
Iraitz Otaño Mujika	BAI
Ane Miren Peña Larrañaga	BAI
Sonia Vazquez Tejerina	BAI



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Mikel Zengotita Alberdi	BAI
Mertxe Zubillaga Albizu	BAI
Javier Zubizarreta Zubizarreta	BAI

Beraz, Udalbatza Osoak 2020-2022 Azkoitiko Udaleko diru-laguntzen plan estrategikoaren aldaketa onartzea aho batez erabaki du.

**5.- AZKOITIKO UDALERRIAN INDARKERIA SEXISTA KASUEN AURREAN ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALA EMATEKO PROTOKOLOA 2020 DOKUMENTUAREN ONESPENA.**

**“GIZARTEA BATZORDEA: GIZARTE ZERBITZUAK, BERDINTASUNA, PREBENTZIOA, INTEGRAZIOA, HEZKUNTZA ETA EUSKARA**

**IRIZPENA**

**GAIA: AZKOITIKO UDALERRIAN INDARKERIA SEXISTA KASUEN AURREAN ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALA EMATEKO PROTOKOLOA 2020**

**I. AURREKARIAK**

Indarkeria sexista osotasun fisiko eta moralaren kontrako eraso izateaz gain, giza eskubideen urraketa onartezina da. Emakumeei eragiten dien genero-desberdintasunen adierazpenik larriena da eta dituen ondorioek izugarri galarazten dute emakumeak baldintza berdinetan eskubideetara eta aukeretara heltzea. Gure gizarteak duen arazo handienetako bat izaten jarraitzen du, beraz, herritar guztien konpromisoaz gain erakunde publikoen erantzun sendo eta eraginkorra eskatzen du.

Eraso sexista baten berri izaten den bakoitzean, ibilbide asistentzian parte hartzen duten eragileek erasotako emakumeari edota familiari arreta integral bat eskaini behar diete. Arreta integral honek zerbitzuen arteko koordinaziorako prozedura bizkorra eta bateratua eskatzen du eta holako xedearekin Azkoitiko Udalak onartu zituen 2014ean. *“Indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeei arreta hobea emateko Azkoitiko Udalaren Protokoloa” eta “Azkoitiko herrian genero indarkeria eta sexu eraso biktima diren emakumeei eman beharreko arreta zerbitzuen koordinaziorako tokiko protokoloa”.*

Indarkeria kasu bakoitzaren errealitatera egokitutako zerbitzu eta baliabideak bermatzeaz gain, udal erakundeak funtsezko rola bete behar du gizartearen sensibilizazioan. Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen aurrean udalaren jokabidea eta ematen duen eredia estereotipo eta aurreiritziak ezabatzeko, biktimen



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

babesa bultzatzeko eta indarkeria sexista gaitzesten duen gizarte iruditegia sortzeko oso baliozkoak dira. Jendaurreko adierazpenek, indarkeria arbuiatzeaz gain, emakumeenganako errespetua sortzen duten patroï soziokulturalak sustatzen laguntzen dute.

*Azkoitiko Udalerrian Indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Protokolo honekin udalak beste aurrerapauso bat eman nahi du berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako bere konpromisoan. Protokolo honek arestian aipatutako arreta zerbitzuen koordinaziorako udal protokoloen tresna osagarria izan nahi du, udaleko politikariek jendaurreko jarduerarako jarraitu behar dituzten urratsak ezarriz eta indarkeria sexistaren biktimekiko esku-hartzea edota arreta hobetzeko prozedura zehaztuz.*

## II. LEGE MARKOA

Protokolo honen bidez, EAEan eta lurralde mailan indarrean dagoen emakumeen indarkeriaren aurkako erreferentziazko lege-esparrua beteko da:

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.
- 1/2004 Lege Organikoa, Abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriena.
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, III. tituluko VII. Kapituluko, 2. atalean erantzun koordinatua eta eraginkorra izateko beharra jasotzen du:

*62. artikulua – Erakundeen arteko koordinazioa.*

*1.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak gai honetan eskumenak dituzten gainerako euskal herri-administrazioekin erakunde arteko lankidetzak-akordioak egin daitezzen sustatuko du; horrela, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen diren kasuetan, erantzuna koordinatua eta eraginkorra izango da, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatezkoa bermatuko zaie. Era berean, gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin ere lankidetzarako bideak bilatu beharko dira.*

2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koak, indarkeria matxistaren aurkako jarrera sozial eta instituzionala areagotzea barne hartzen du:

*22. artikulua. Informazioaren ekoizpena eta kudeaketa, eta barne zein kanpo komunikazioa.*

*1. 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 26. artikuluan xedatutako obligazioak betetzea eragotzi gabe, bere jardunean Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu hauek lortzeko ahalegina egingo du:*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

c) Emakumeen irudi anakroniko eta estereotipatuaren transmisioa saihestu eta baztertzea, baita sexu bat bestearen gainetik edo azpitik dagoen ideia gainditzea ere.

f) Indarkeria matxistaren aurrean erakunde eta gizarte arbuioa zabaltzea.

55. artikulua. Prebentzioa eta sentsibilizazioa.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak ardura hauek izango ditu besteak beste:

2. Populazioaren, erakundearen eta komunikabideen mobilizazioa bultzatzea, indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurkako arbuio kolektiboa publikoki adieraz dezaten, zero tolerantziaren politikaren aldeko konpromisoa adieraziz.

Horrez gain, EAEan, Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioa da biktimei diren emakumei arreta ematen diharduten euskal erakundearen arteko koordinazioaren hobekuntzarako oinarria.

Akordio honen Jarraipen Batzordeak, 2013ko maiatzean egindako bileran, etxeko tratu txarreatatik eta sexu indarkeriatatik gertatzen diren heriotza kasuen aurrean erantzun instituzional koordinatua emateko jarduera prozedurak finkatu eta adostu zituen.

### III.- PROTOKOLOAREN XEDEA

Protokolo honen xedea erasotako emakumei arreta osoa eta lehentasunezkoa emateko, erasotzailearen gaitzespena publikoki adierazteko eta biktimei une oro laguntza erakusteko mekanismoak adostea da. Era berean, Gizarteari salaketa bateratuak tartekatzeko bidea ematea, beraren partaidetza ahalbidetzea eta bultzatzea.

Dokumentuan helburu hauek nabarmentzen dira:

- Udalaren **erantzun integrala eta garbia** eratzea, eta erakundearen eta hura osatzen duten pertsonen jokabide irmoa proiektatzea.
- **Eraginkorrak** izatea indarkeriaren aurrean publikoki erantzuteko orduan, erakundearen koordinazioa erraztuz.
- Gizarte eragileen eta herritarren **adierazpen bideak** sendotzea emakumeen aurkako erasoaren aurreko **erantzun** publikoari dagokionez.
- **Azkoitiko udalaren gaitzespen** publikoa erakustea indarkeria sexista mota guztiei eta biktimei laguntzeagatik edozein indarkeria pairatzen duenari.
- Indarkeria sexistarekiko **tolerantziarik ezaren kultura** eta **sentsibilizazioa** sustatzea, adierazpen ororen aurrean, edozein esparru eta formetan.
- Eraso sexistaren biktimari **arreta bermatzea**. Foru eskumeneko zerbitzu eta baliabideak eta udal eskumenekoak koordinatuta eskainiko dira.
- Emakumeen **eskubideak eta askatasuna indartzen** laguntzea, emakumeen segurtasuna bermatuz beldurraren kulturarik sorrarazi gabe.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Hedabideetan **indarkeria sexistaren tratamendu egokia** bultzatzea, indarkeriaren erantzulea indarkeria erabiltzen duena baino ez dela azpimarratuz.
- Indarkeria sexistaren kontrako Azkoitiko herriaren jarrera sendotzea.

#### IV.- IKUSIRIK

*Azkoitiko udalerrian indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko protokoloa* onartzeko egutegia finkatuta dago, jada, eta aurreikusten da protokoloa bera 2020ko urriaren 28an egingo den Osoko Bilkura onartua izatea.

**Batetik**, 2020ko abuztuaren 3an, berdintasun teknikariak Gizarte Batzordeko ordezkari politikoei protokoloa helarazi zien eta hilabeteko epea eman zien dokumentua azter zezaten. 2020ko irailaren 3an izandako bileran, teknikariak protokoloa aurkeztu zuen, alderdi tekniko zein legezkoenei buruzko zalantzak argitu eta ordezkari politikoen proposamen guztiak jaso zituen, ondoren aztertzeko.

**Bestetik**, proposamenak aztertu ondoren, 2020ko irailaren 16an, Gizarte Batzordean protokoloan egindako aldaketan berri eman zitzaizen batzordekideei. Era berean, berdintasun arduradun politikoa eta teknikaria protokoloaren berri emateko eta haien iritzia jasotzeko Azkoitiko talde feministarekin bilduko zirela jakinarazi zen. Bilera hori irailaren 24an egin zen.

**Azkenik**, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, onespena Udalbatza Plenoaren eskumena da.

Hori horrela, Gizarte Batzordeak (Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Prebentzioa, Integrazioa, Hezkuntza eta Euskara), 2020ko urriaren 14an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena hau eman zuen, honako emaitza honekin:

#### Aldeko botoak:

- Janire Igoa Merino
- Mertxe Zubillaga Albizu
- Sonia Vázquez Tejerina
- Marijose Arregi Etxeberria
- Laida Beristain Zubizarreta
- Ane Miren Peña Larrañaga
- Jose Joakin Etxaniz Peña

#### Kontrako botoak:

#### Abstentzioak:

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Gizarte Batzordeak:



## IRIZPENA

**LEHENA.-** Onartzea Azkoitiko udalerrian indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko protokoloa 2020.

**BIGARRENA.-** Erabaki hauek Udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web-orrian argitaratzea.”

Alkate Jk. batzarkideak zoriondu ditu, aho batez onartu zelako batzordean.

Mertxe Zubillaga andreak Azkoitiko Udalerrian indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko protokola ekarri dela plenora adierazi du, aurrekoa Gipuzkoako Foru Aldundiak landutakoa baitzen. Azkoitia Baik protokoloa Azkoitira egokitzeko proposamenari jarraiki protokolo hau landu da alderdien artean. Guztion artean adostuta, Sostenipe Talde Feministari aurkeztu zitzaiola esan du, eta ondo ikusi zutela. Guztion nahia inoiz martxan jarri beharrik ez izatea dio amaitzeko.

Jose Joakin Etxaniz jaunak alderdi guztiek landu dutela dio, baita talde feministarekin ere. Pausuak ematea eskertzen du.

Iraitz Otaño jaunak eskerrak ematen ditu beraien ekarpenak jasotzeagatik. Urrats bat gehiago dela esan du; nahiz eta segimendua emateko mahai politiko bat martxan jarri nahiko luketen, aldeko bozka iragarri du.

Mertxe Zubillaga andreak eskertzen du guztien partaidetza.

Bozketa nominala honakoa izan da:

IZEN ABIZENAK	BOTOA
Marijose Arregi Etxeberria	BAI
Imanol Arrizabalaga Larrañaga	BAI
Ana Azkoitia Urteaga	BAI
Laida Beristain Zubizarreta	BAI
Jose Joakin Etxaniz Peña	BAI
Angel M <sup>a</sup> Etxeberria Iburguren	BAI
Ainara Goenaga Andueza	BAI
Janire Igoa Merino	BAI
Itziar Joaristi Olariaga	BAI





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Angel Luis Martin Rodriguez	BAI
Juan Bautista Mendizabal Juaristi	BAI
Iraitz Otaño Mujika	BAI
Ane Miren Peña Larrañaga	BAI
Sonia Vazquez Tejerina	BAI
Mikel Zengotita Alberdi	BAI
Mertxe Zubillaga Albizu	BAI
Javier Zubizarreta Zubizarreta	BAI

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko udalerrian indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko protokoloa 2020 dokumentua onartzea aho batez erabaki du.

#### **6.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	<b>Behin bet. aurr. Pres. def.</b>	<b>Baimendua Autorizado</b>	<b>Erabilia Dispuesto</b>	<b>Onart. oblig. Contraído</b>	<b>Ordainketa Pagado</b>
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	15.110.000,00	12.028.945,9 0	10.593.035,18	9.088.023,87	8.802.651,60
	<b>Behin bet. aurr. Pres. Def.</b>	<b>Onar. esk. Garb Dchos. Recs..</b>	<b>Bildut-garbia Recaudado</b>	<b>Kobr. Dagoena Pte. cobro</b>	<b>Itzulketak Devoluciones</b>
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	15.110.000,00	10.380.769,4 6	9.419.226,75	886.552,66	63.660,25

#### **7.- GALDE ERREGUAK.**

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertze gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zortziak hogeit gutxi direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

**ALKATEA**

**IDAZKARIAK**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*\*Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*

**IDAZKARITZA** – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – [idadzkaritza@azkoitia.eus](mailto:idadzkaritza@azkoitia.eus)  
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

34



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa3a4740b-8f22-4ba0-a6e9-390f6b6a4421**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021PLEN0002-Akta/Acta